

Uztailaren 16an Labeinek onartutako fusio-hitzarmena baliozkotu dute Cidemco, ESI, Euve, Fatronik, Inasmet, Leia eta Robotiker zentroek

Dena prest Tecnalía Research & Innovation sortzeko, Espainiako lehen teknologia-zentroa, eta Europako bosgarrena

- **Ikerketa aplikatuko zentro pribatu gisa eratuko da; goi-mailako prestakuntza duten 1.450 langile ditu, eta 125 milioi euroko fakturazioa**
- **Lehenengo lehendakaria Javier Ormazabal enpresaburua izango da**

2010eko abuztuak 6. Uztailaren 16an Labeinek onartutako fusio-hitzarmena baliozkotu dute Cidemco, ESI, Euve, Fatronik, Inasmet, Leia eta Robotiker teknologia-zentroek. Hala, Tecnalía Research & Innovation sortuko dute, Espainiako lehen teknologia-zentro pribatua, eta Europako bosgarrena.

Gaur goizean, ESIren patronatuak Tecnalía Research & Innovation-i atxikitzea erabaki du, lehenago Euve, Leia eta Robotiker (uztailaren 27an), Cidemco eta Inasmet (uztailaren 28an) eta Fatroniken (uztailaren 29an) patronatuek egin zuten bezalaxe.

Erabaki horiek hartzeko, prozesuaren enpresa-ikuspegia nagusitu da, duela urte eta erdi hasitako fusio-proiektua bukatzeko asmoz. Era berean, patronatuek Zentro berriak izango duen garrantzia baloratu dute, bai gizartearentzat, bai bat egingo duten 8 zentroetan lan egiten duten pertsonentzat, bai oraingo eta geroko bezeroentzat.

Zentroetako batek, kasu honetan Labeinek, —arrazoi teknikoengatik— gainerako zazpiak barnean hartzeko diseinatu da bat-egitea. Labein Tecnalía Research & Innovation izango da datorren irailaren 1ean, eta behin-behineko egoitza soziala izango du. Gainerako zazpiak 2011ko urtarrilaren 1ean izango dira Tecnalía Research & Innovation.

Beraz, bat-egitearen ondorioz sortutako erakunde hori fundazio bat izango da juridikoki, eragin juridiko guztiekin, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera, baina lanean berehala hasiko da. Izan ere, teknologia-zentro berriak dagoeneko badu bere organigrama, eta urte hasieratik lanean ari da Zuzendaritza Kontseilu berria.

Horrela, Tecnalía Research & Innovation Espainiako ikerketa aplikatuko lehen zentro pribatua da, eta Europako bosgarrena. Goi-mailako prestakuntza duten 1.450 langile ditu, eta 125 milioi euroko fakturazioa. Sortu den erakunde berriaren bazkide laguntzaile izango dira berrehun bat enpresa eta erakunde, eta hura garatzen lagunduko dute.

Lehenengo patronatuaren osaerari dagokionez, enpresek presentzia nabarmena dute: 44 kideetatik 33 sektore pribatukoak dira, eta 11 erakunde publikoetakoak. (I. eranskinean dago zerrenda osoa).

Eratutako patronatua irailean bilduko da lehen aldiz. Helburuetako bat izango da erakundeen arteko lankidetzaz berreskuratzea eta hartzeke dauden erabakiei ekitea —adibidez, egoitza sozialaren behin betiko kokapena—.

LEHENDAKARIA

Grupo Ormazabaleko lehendakari **Javier Ormazabal** aukeratu dute **Tecnalia Research & Innovationeko lehen lehendakaria** izateko, bat egindako teknologia-zentro guztien artean adostuta.

Izendapen horretan, nabarmentzekoa da lehendakari berriaren independentzia (ez baitago lehendik dauden patronatuetako batean ere), eta teknologia-zentro berriaren enpresa-jarrera eta zentroak enpresaburuekin duen konpromisoa erakusten ditu.

Ormazabal industria-taldeak 2.000 langile baino gehiago ditu, 400 milioi euro fakturatzen ditu, eta 50 herrialdetan baino gehiagotan ekoizten eta saltzen ditu bere produktuak.

Bestalde, lehendakariorde izendatu dituzte Asís Canales, Iberdrolaren ordezkaria, eta Ignacio Sáenz de Gorbea, Galdatzaile Elkartearen Espainiako Federazioaren ordezkaria. Azkenik, Félix Iraola, bat egin duten zentroetako bateko gaur egungo lehendakaria, izendatu dute idazkari.

DIBISIOAK ETA SEKTOREKO NEGOZIO-UNITATEAK

Tecnalia Research & Innovationen marka Tecnalia izango da hemendik aurrera ere, eta Zuzendaritza bakarra izango du, jarraibide estrategiko eta eragileak ezarriko dituena. Zuzendari nagusia Joseba Jauregizar izango da, eta egitura bost dibisiotan antolatua egongo da: Garapen Jasangarria, Industria eta Garraioa, Berrikuntza eta Gizartea, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia, eta Osasuna eta Bizi Kalitatea.

Dibisio bakoitzak negozio-unitate batzuk izango ditu —guztira, hamasei—. Negozio-unitate horiek bezeroa izango dute helburu, eta jarduera-sektoreen arabera espezializatuko dira, hala nola energia, ingurumena, eraikuntza, galdaragintza eta burdingintza, garraioa, osasuna, softwarea, sistema industrialak, eta telekomunikazioak.

Zentro berriak soluzio integralak eskainiko dizkie bezeroei, negozio-unitateetako ahalmen teknologikoak eta merkatu-ahalmenak ekimenez hibridatuz. Erronka teknologiko konplexuei erantzuna eman ahal izango zaie, zentroko lankidetzari, jakintza-alorren aniztasunari eta zeharkakotasunari esker: elkar hartuta aurre egingo zaie erronkei, erantzun integral eta guztiz espezializatuak emateko.

Tecnalia Research & Innovation nazioartera begira sortu da; horregatik, mundu osoko bezeroak eta bazkideak ditu, eta mundu osoko talentuaz baliatzen da. 26 kokaleku izango ditu guztira, eta bezeroen ikerketa eta garapeneko beharrei herrialde hauetako guztietako kokalekuetatik erantzuteko ahalmena du: Espainia (Azpeitia, Burtzeña, Derio, Donostia, Miñao, Irun, Zamudio, Cádiz eta Madril), Alemania, Frantzia, Italia, Bulgaria, Serbia, Egipto, AEB, Kolonbia, Txile, Brasil eta Argentina.

Tecnalia Research & Innovation **Tecnalia Korporazio Teknologikoaren** barruan dago, AZTI-Tecnalia eta NEIKER-Tecnaliarekin batera; azken horiek itsas eta elikagai-arloko ikerketan, eta nekazaritzako berrikuntzan, ingurumenean eta baliabide naturaletan espezializatuak daude, hurrenez hurren. Hiru teknologia-zentroek estrategia bera dute, eta lan egiteko eredu berritzaile bera, sektorekako negozio-unitateetan oinarritua eta zeharkakotasun handikoa. Tecnalia Korporazio Teknologikoko lehendakaria José María Echarri izango da hemendik aurrera ere.

EGOITZA

Eratutako patronatuak izendatutako Batzorde baten ardura izango da, 2010eko abenduaren 31 baino lehen, egoitza sozialaren behin-betiko kokapenari buruzko akordio batera iristea. Urtarrilaren 1etik aurrera, eta akordiorik ez dagoen bitartean, egoitza orain arteko bera izango da 2011ko uztailaren 1a arte. Orduetik aurrera, 18 hilabetean behin lurraldeak txandatu joango dira, Donostian hasita.

GERTAERA GARRANTZITSUAK / PROZESUA

2001eko uztailan Tecnalia Korporazio Teknologikoa sortzean abiatutako arrakasta-eredua finkatu egingo da bat-egitearen bidez. Orduetik hona, Tecnaliako kideek aurrera egin dute integratzeko bidean, gaur egungo egoerara iritsi arte.

2001: Tecnalia Korporazio Teknologikoa sortu zen, Inasmet, Labein eta Robotikerren eskutik.

2003: Azti sartu zen Tecnalia Korporazio Teknologikoan.

2003: European Software Institute (ESI) sartu zen Tecnalia Korporazio Teknologikoan.

2006: Neiker sartu zen Tecnalia Korporazio Teknologikoan.

2007: Fatronik sartu zen Tecnalia Korporazio Teknologikoan.

2008: Cidemco sartu zen Tecnalia Korporazio Teknologikoan.

2008: Abenduan, korporazioko sei zentrok erabaki zuten itunean azken urratsa ematea eta erabateko integratzera eraman dituen prozesuari ekitea.

2009ko ekainaren 24a: Cidemco, ESI, Fatronik, Inasmet, Labein eta Robotiker zentroek fusio-protokolo bat sinatu zuten.

2010eko uztailaren 16a: Labeinek fusio-akordioa onartu zuen.

2010eko uztailaren 27a: Euve, Leia eta Robotikerrek fusio-akordioa onartu zuten.

2010eko uztailaren 28a: Cidemcok eta Inasmetek fusio-akordioa onartu zuten.

2010eko uztailaren 29a: Fatronikek fusio-akordioa onartu zuen.

2010eko abuztuaren 6a: ESIk fusio-akordioa onartu du.

2010eko irailaren 1a: Labein Tecnalía Research & Innovation izango da.

2011ko urtarrilaren 1a: Cidemco, ESI, Euve, Fatronik, Inasmet, Leia eta Robotiker Tecnalía Research & Innovation izango dira.

2011ko urtarrilaren 1a: Tecnalía Korporazio Teknologikoa zentro hauek osatuko dute: Tecnalía Research & Innovation, Azti eta Neiker.

I. eranskina: Tecnalía Research & Innovation Fundazioaren patronatuaren osaera.

I. ERANSKINA

TECNALIA RESEARCH & INNOVATIONEKO LEHEN PATRONATUA: **44 KIDE**

26 ENPRESA KIDE:

- ACCIONA INFRAESTRUCTURAS, SA
 - Ignacio Calvo
- ALMAVIVA, SpA
 - Luigi Viscione
- BATZ S.COOP.
 - Bingen Aranzabal
- CEMENTOS LEMONA, SA
 - Ignacio Manuel Machimbarrena
- CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES SA
 - Eduardo Etxeberria
- ELECTROTÉCNICA ARTECHE HNOS. SA
 - José Javier de Arteche
- EUROPEAN SOFTWARE INSTITUTE - CENTER BULGARIA
 - George Ivanov Sharkov
- FAGOR EDERLAN, S.COOP.
 - Juan M^a Palencia
- FEDERACION ESPAÑOLA DE ASOCIACIONES DE FUNDIDORES
 - Ignacio Sáenz de Gorbea
- FUNDACIÓN BBK - BBK FUNDAZIOA
 - Fernando Irigoyen

- FUNDACIÓN METROPOLI PARA LA INNOVACIÓN Y DISEÑO DEL TERRITORIO
 - Alfonso Vegara
- GAMESA CORPORACIÓN TECNOLÓGICA, SA
 - José Antonio Malumbres
- GUARDIAN LLODIO UNIO, SL
 - María Pilar Veiga
- HYDRO BUILDING SYSTEM, SL
 - José Luis Velasco
- IBERDROLA GENERACIÓN, SA
 - Javier Morrás
- IBERDROLA, SA
 - Asís Canales
- IBERMÁTICA, SA
 - Iñaki Rementería
- INDRA
 - Heliodoro Ruipérez
- INGETEAM CORPORACIÓN, SA
 - Miguel Gandiaga
- LANTIK, SA
 - Roberto Ibarretxe
- NICOLAS CORREA, SA
 - José Ignacio Sáez
- ORMAZABAL CORPORATE TECHNOLOGY AIE
 - Javier Ormazabal
- SDAD. FINANCIERA Y MINERA, SA – CEMENTOS REZOLA
 - José M^a Echarri
- VICINAY, SA
 - Luis María Cañada
- W.E.E. – HAIZERROTA AIE
 - José Manuel Sorazu
- ZIV APLICACIONES Y TECNOLOGIA, SL
 - Norberto Santiago

11 ERAKUNDE KIDE:

- EUSKO JAURLARITZA
 - 6 ordezkari
- ARABAKO FORU ALDUNDIA

- Ordezkarari bat
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
 - Ordezkarari bat
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
 - Ordezkarari bat
- ESTATUAREN ADMINISTRAZIO OROKORRA
 - Ordezkarari bat
- EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
 - Ordezkarari bat

PERTSONA AIPAGARRIAK, 7 KIDE:

- Andoni Lorenzo
- Carlos Olabe
- Félix Iraola
- Juan Ignacio López Gandásegui
- Juan José Azurmendi
- Luis Goenaga
- Pedro Miguel Etxenike